

webguneak 

Kablerik gabeko Internet indartzen ari da

Andoni Sagarna · Plazagunea

1990eko hamarkadan Internet izena ikasi behar izan genuen bezala, orain, beste izen bat ikasi beharra daukagu: Wi-Fi. Hiztegi arruntetan oraindik ez dago, baina Interneteko terminologia jarraitzeko ezinbestekoa den www.webopedia.com helbidean aurkitu dugu definizioa:

«Wi-Fi laburdurak *wireless fidelity* (kablerik gabeko fidelitasuna) esan nahi du, eta IEEE 802.11b izenaren ordean erabiltzen da, IEEE.802.3 erabili ordean, Ethernet erabiltzen den bezalaxe».

Horrela esanda ez da asko ulertzen, baina argitu dezakegu pixka bat hau dena. Badakigu Ethernet ordenagailuak kable bidez sarean konektatzeko protokolo bat dela. Wi-Fi, berriz, ordenagailuak sarean konektatzeko beste protokolo bat da, baina honek kableak erabili ordean, airean (edo hutsean) transmititzen diren irrati-uhinak erailtzen ditu.

Wi-Fi sisteman, makina batzuk zerbitzariak dira, eta beste batzuk bezeroak. Gaur egun, edozein ordenagailu izan daiteke bezero, txartel egoki bat jartzen bada.

Magaleko ordenagailuentzako
802.11b txartela

<http://www.buynetgear.com/product.asp?sku=1716907>

Zerbitzari baten inguruan, 90 bat metroko erradio baten barnean dauden bezeroak zerbitzariarekin konekta daitezke. Horrela, adibidez, denda bateko langileek eraman dezakete aldean sakelako ordenagailu bat dendaren barruan batetik bestera dabilzanean, eta, inolako kablerik gabe, zerbitzari batean kontsultatu gordailuko izakinak edo kaxara datuak bidali.

Zerbitzariak Interneteko konexio bat baldin badu, bere inguruan kablerik gabe Internetera sartzeko aukera ematen duen eskualdetxo bat sortzen da; beraz, han dagoen edonork aukera hori izan dezake.

Internetera konektatutako zerbitzari horiei Wi-Fi puntu beroak esaten zaie. Horrelakoak jartzen ari dira han eta hemen, hoteletan, aireportuetan, etab. bezeroek kablerik gabe kafetegitik edo itxarongela batetik posta edo fitxategiak igorri eta jaso, edota webean nabigatu ahal izan dezaten. Badira kafetegi-kateak euren lokal guztietan zerbitzu hori eskaintzen dutenak, Starbucks katea, adibidez:

• <http://www.starbucks.com>

info 

www.www.www.www.www.www.www.www

Kleraren gerrillariak




Interneten inguruan eten gabe sortzen diren terminoen artean, bada bat oso ezaguna bihurtzen ari dena: *warchalking*. Hitza berria bada ere eta kablerik gabeko Internetekin lotuta baldin bada ere, ideia, beste arlo batean aspaldikoa da.

AEBetan, 1929ko Depresio Handiaren garaian, lanik gabe gelditzen ziren etorkinek eta etxerik gabekoek marrak egiten zituzten kleraz hormetan edo lurrean, batzuek besteei janaria non lor zezaketen aditzera emateko. Hirurogeita hamar urte geroago, antzeko teknika erabiltzen dute kablerik gabeko internautek; baina, orain, konexioak non lor ditzaketen elkarri esateko. Oinarrizko hiru zeinu hasi ziren erabiltzen:

Bi zirkuluerdik elkarri bizkarra emanda, puntu bero ireki bat adierazteko; zirkulua puntu bero itxiarentzat; eta *W* letra barruan duen zirkulu bat, segurtasun-protokoloa duen puntu bero baten zat. Hortik abiatuta, beste hainbat zeinu ari dira asmatzen.

Gai honi buruzko informazio gehiago:

<http://www.warchalking.org/>

let's warchalk..!	
KEY	SYMBOL
OPEN NOTE	ssid  bandwidth
CLOSED NOTE	ssid 
WEP NOTE	ssid access contact  bandwidth

blackbeltjones.com/warchalking
The original three "warchalk" designs spawned off a larger set of symbols.



Salamancako Udala ere bide beretik abiatzeko asmotan da. Hainbat lekutan, bada jendea, irabazi asmorik gabe, Wi-Fi sareak hirietan hedatzen ari dena, baita Euskal Herrian ere:

Bilbon

• <http://bilbowireless.net/>

Gasteizen

• <http://membres.lycos.fr/vitoriawireless/>

Euskal Herriko Unibertsitatea izan da Estatuan lehenbiziko unibertsitatea Internetera kablerik gabe sartzeko aukera

ematen. Donostiako Informatika fakultatean, ikasleek eta irakasleek aukera dute fakultateko sarera nahiz Internetera konektatzeko, euren ordenagailu eramangarrietatik, kablerik gabe, are eraikinetatik kanpora daudenean ere; eta, pixkanaka, estaldura handitzen joango da. Nafarroako Unibertsitatearen Donostiako Goi-mailako Ingeniariei Eskolak eta Goi-mailako Idazkaritza eta Administrazio Institutuak ere laster izango dute horrelako zerbitzu bat, Unibertsitateak enpresa batekin sinatu duen hitzarmenaren arabera.

Sakelako ordenagailua eta telefona Internet Explorer-ekin.

